

Erakundearen aurreikuspena maila egonkorrean jarri du agentziak

Kutxabanken kalifikazioa A mailara arte hobetu du Morningstar DBRS-k

- **Txostenak Taldearen kreditu-arriskuaren adierazleen sendotasuna eta bere kaudimen-posizio nabarmena goretsi ditu**

2024ko urtarrilaren 19an. Morningstar DBRS nazioarteko agentziak Kutxabank Taldearen kalifikazioa A-tik (baxua) **A-ra** igo du, eta bere aurreikuspena **maila egonkorrean** jarri du. Epe laburreko balorazioa R-1ean mantendu du (baxua).

Igoeraren arrazoiak ematean, agentziak dio bankuaren **errentagarritasuna hobetu** dela, **eraginkortasun maila altua** eta **arriskuen kostua txikia** izateaz gain. Azterketak gorai patzen ditu Kutxabanke bere jardura-eremu naturaletan duen **frankizia sendoa**, **arrisku-profil baxua**, kreditu-arriskuaren adierazle sendoak, estaldura-ratioa eta **kaudimen-posizio nabarmenarekin** batera.

Kutxabanken **finantzaketa-profila** sendoa da eta bezeroen gordailuen oinarri indartsuaren babesa du, hazten ari den oinarria gainera. Izan ere, 2017az geroztik bankua etengabe ari da handitzen bezeroen gordailuen pisua, eta 2023ko lehen seihilekoaren amaieran finantzaketa osoaren % 90 estaltzen zuten.

Bere azterketan, agentziak adierazten du kalifikazioaren balizko hazkundera Espainiaren kalifikazioa hobetzearen baldintzapean egongo litzatekeela. Honela, Kutxabanken balorazioa Espainian negozioa duten finantza-erakundeek lor dezaketen **mailarik gorenean** dago hiru agentzia nagusien arabera, hau da, Fitch, Moodys eta Morningstar DBRSren arabera.

Horrez gain, Morningstar DBRS-k **Cajasurren** kalifikazioa **A-raino** hobetu du, hau ere aurreikuspen **egonkorrekin**.

Morningstar DBRS munduko laugarren kalifikazio-agentzia nagusia da, eta azterketa honi esker, Taldearen gardentasun-maila sendotzea lortzen du, erakundera aztertzen duten kalifikazio-agentziak dibertsifikatzen baitira.

Kutxabanken kalifikazioak

	Rating
Long-Term Issuer Rating	A
Long-Term Senior Debt	A
Long-Term Deposits	A
Senior Non-Preferred Debt	A (low)
Short-Term Issuer Rating	R-1 (low)
Short-Term Debt	R-1 (low)
Short-Term Deposits	R-1 (low)

Kutxabanki buruz

Kutxabank erakunde liderra da Euskadin eta Kordoban. 700 bulego inguru ditu, bere jatorrizko lurraldeetan kapilaritate handiena duen sukurtsal-sarea, eta presentzia nabarmena du Andaluzian, Madrilen eta Katalunian. 5.000 profesional baino gehiagoko taldearekin, Kutxabank da, Europako ikuskatzaileen arabera, gure finantza-sistemako bankurik kaudimendunena eta Europan arrisku-profil onena duen hirugarren erakundea.